El debate presupuestario en la CAV y la obligación de conseguir los escaños suficientes por parte de los dos partidos que conforman el Gobierno –PNV y PSE– para garantizar su aprobación sitúa este debate como uno de los principales de la agenda política. El acuerdo entre **PNV-PSE** y **Podemos-Equipo** es sobre todo un triunfo para los partidos del Gobierno y un espaldarazo a sus políticas neoliberales. Los argumentos contrarios que este mismo partido utilizó el pasado año en el debate presupuestario en el que **EH Bildu** era quien se mostraba más dispuesto a facilitar este tipo de presupuestos, son perfectamente válidos para este año.

La izquierda ha abandonado la lucha por el poder

El acuerdo suscrito no supone cambio alguno en la orientación neoliberal de estos presupuestos, son los mismos, tan solo **se han modificado el 0,75% del presupuesto** (88,9 millones de un presupuesto de 11.774 millones). Es decir, tan solo un diminuto cambio de partidas dentro de lo ya aprobado por el gobierno.

Podemos-Equipo afirmó afrontar el debate presupuestario sin líneas rojas, por desgracia tenían razón. Han aceptado acriticamente la medida ideológica por excelencia de la política de austeridad, la regla de gasto, la que impide destinar más recursos a sanidad, educación, dependencia, vivienda... porque la llamada política de austeridad no es otra cosa que eso, prioridad la amortización de deuda. Por si fuera poco, y ante las necesidades sociales existentes, el gobierno de Urkullu nos dice que sobra dinero, la recaudación está aumentando (**800 millones de superávit** en los dos últimos años). Sin embargo las partidas presupuestarias no se mueven.

Todo esto en un contexto de aumento de la pobreza y a su vez de crecimiento económico. Sin tocar el debate fiscal (la presión fiscal de la CAV está en el 32,5% y la media europea en el 39 % se equipara se la presión fiscal media se recaudarían 4.800 millones más de los que se recaudan) y en medio de un debate donde se pretende eliminar el impuesto de patrimonio que Podemos-Equipo ha decidido ignorar.

No escondemos nuestra decepción. Es dramático que la izquierda institucional sea asimilada, que desaparezcan la oposición y el antagonismo político no son una

buen noticia. Hacen flaco favor a las fuerzas sindicales y sociales que defendemos la transformación radical de las políticas presupuestarias y fiscales.

Vamos a seguir hablando de estos presupuestos más allá de la firma de los mismos, porque mandan un mensaje muy claro y directo a todos aquellos sectores afectados directamente por sus políticas: **!No estamos dispuestos a cambiar nada!** detrás de cada conflicto o movilización vamos a tener muy presente que está la sombra de estos presupuestos.

Al poder político, en este caso el **Gobierno Vasco**, este tipo de concesiones le proporciona una gran visibilidad mediática y la centralidad política que se otorga momentáneamente a quien transige, a aquellos *que se portan bien*. Se subrayan valores como la transversalidad, el consenso y la responsabilidad e incluso la capacidad de influencia (aunque solo se modifique el 0,75% del presupuesto). Un partido de izquierda no crece acercándose a la derecha.

La irrelevancia, cuando no la desaparición de proyectos de izquierda en Europa, a la vez que crecen los partidos de ultraderecha es una lección que convendría no olvidar. La izquierda tiene que buscar el antagonismo, ser fácilmente identificable como alternativa, disputar el poder. Un discurso radical, pragmático y cercano a los problemas de la gente. La gente necesita referencias políticas que hablen de sus problemas, que defiendan los intereses de miles de personas en una sociedad cada vez más desigual. ■

OTA GETXOko TAO
GREBAN

abenduaren
21-23-24
de diciembre

EYSA hitzarmena orain!

**¡Ayuntamiento de Getxo
exigimos respeto!**

**5 urtez soldata
izozturik**



**OTA en lucha por nuestras
condiciones laborales**

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

CONSULTORIO JURÍDICO

Doctrina Matzak: las guardias localizadas como tiempo de trabajo

La regulación del tiempo de trabajo es una fuente de constantes discrepancias en el ámbito laboral. La jornada laboral, los tiempos de descanso, las vacaciones, las horas extraordinarias o la naturaleza de las guardias son materias sobre las que se emiten numerosas resoluciones judiciales.

Tanto en estas como en otras materias del ordenamiento jurídico laboral son de suma importancia los pronunciamientos del Tribunal de Justicia de la Unión Europea (TJUE). Y es que, dada la primacía del derecho de la Unión Europea sobre el derecho de los estados miembros, tanto las Directivas como Reglamentos y la jurisprudencia que los interpreta están adquiriendo un papel cada vez más protagonista en las relaciones laborales.

Precisamente en relación al tiempo de trabajo, y más concretamente a la consideración jurídica que debe atribuirse a las guardias localizadas, la Sentencia del TJUE en el caso de un bombero voluntario belga nos sirve de pretexto para precisar conceptos como tiempo de trabajo y guardias, sean o no localizadas.

Regulación del tiempo de trabajo

- DIRECTIVA 2003/88/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 4 de noviembre de 2003, relativa a determinados aspectos de la ordenación del tiempo de trabajo.
- Real Decreto Legislativo 2/2015, de 23 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores. Artículos 34 a 38.

Tiempo de trabajo, guardias y guardias localizadas en la doctrina del TJUE

En relación con la calificación que debe darse al tiempo de guardia (si como tiempo de trabajo o de descanso), el Tribunal de Justicia de la Unión Europea (TJUE) ha establecido la doctrina siguiente:

- los conceptos de «tiempo de trabajo» y de «período de descanso» se excluyen mutuamente (por consiguiente, hasta el momento, el Derecho de la Unión no contiene una categoría intermedia: o se califica como «tiempo de trabajo», bien de «período de descanso»).
- entre los elementos característicos del concepto de «tiempo de trabajo» (art. 2) no figuran la intensidad del trabajo desempeñado por el trabajador/a por cuenta ajena ni el rendimiento de éste.
- el factor determinante para la calificación de «tiempo de trabajo», es el hecho de que el trabajador/a está obligado a hallarse físicamente presente en el lugar determinado por el empresario y a permanecer a disposición de éste para poder prestar sus servicios inmediatamente en caso de necesidad.
- las guardias localizadas (esto es, estar accesible permanentemente sin estar presente en el lugar de trabajo) no pueden recibir igual calificación, especialmente, porque «en esta situación el trabajador puede administrar su tiempo con menos limitaciones y dedicarse a sus intereses personales».



Las guardias localizadas (doctrina Matzak)

La regla general en relación con las guardias localizadas es, por tanto, que no son consideradas tiempo de trabajo.

En tal sentido, la jurisprudencia del Tribunal Supremo (STS 8 de octubre 2003, rec. 48/2003) entiende que no debe considerarse tiempo de trabajo efectivo el tiempo en que un trabajador se encuentre en guardia de localización durante aquel periodo en el que trabajador no preste trabajo efectivo, ni se encuentre presencialmente en el centro de trabajo.

Sin embargo, el TJUE en Sentencia de 21 de febrero de 2018, asunto C-518/15, afirmó que el tiempo de guardia que un trabajador (bombero voluntario) belga (Sr. Matzak) pasa en su domicilio con la obligación de responder a las convocatorias de su empresario en un plazo de ocho minutos debe considerarse «tiempo de trabajo» (especialmente, porque restringe considerablemente la posibilidad de realizar otras actividades personales y sociales). En tal sentido, TJUE afirma lo siguiente:

«... la obligación de permanecer presente físicamente en el lugar determinado por el empresario y la restricción que, desde un punto de vista geográfico y temporal, supone la necesidad de presentarse en el lugar de trabajo en un plazo de ocho minutos, limitan de manera objetiva las posibilidades que tiene un trabajador que se encuentra en la situación del Sr. Matzak de dedicarse a sus intereses personales y sociales.

Habida cuenta de tales limitaciones, la situación del Sr. Matzak se distingue de la de un trabajador que, durante su servicio de guardia, simplemente debe estar a disposición de su empresario a los efectos de que éste pueda localizarle.

En estas circunstancias, el concepto de «tiempo de trabajo», establecido en el artículo 2 de la Directiva 2003/88, debe interpretarse en el sentido de que se aplica a una situación en la que un trabajador tiene la obligación de permanecer en su domicilio durante el período de guardia, de estar a la disposición del empresario y de poder presentarse en su lugar de trabajo en un plazo de ocho minutos».

En consecuencia, lo determinante en el caso Matzak es, en primer lugar, la obligación de estar en un lugar determinado por el empresario (su vivienda) y, en segundo lugar, la necesidad de presentarse en el lugar de trabajo en un plazo muy breve (8 minutos).

Conclusión

Debe tenerse presente que la doctrina Matzak se refiere a un planteamiento excepcional con respeto a la línea interpretativa mantenida por el TJUE en relación con las guardias localizadas. Esto supone que habrá que analizar cada caso en concreto, y la regla general seguirá siendo que el tiempo de guardia no será considerado tiempo de trabajo, salvo que se den circunstancias concretas que impliquen tanto una obligatoriedad de estar en lugar predeterminado por el empresario como la necesidad de comparecer, en caso de necesidad, en un período de tiempo muy breve, restringiendo así de manera considerable la posibilidad de realizar otras actividades personales y sociales.



Aurrekontuak, beste arrazoi bat grebarako

EAEko aurrekontuak onartzeak mesede eskasa egiten die eraldaketa erradikala defendatzen duten indar sindikal eta sozialei

> Landeia

Urriaren 22an Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak Aurrekontu Orokorren Proiektua onetsi zuen. ELAk sakon aztertu du aurrekontu proiektua, eta azaroaren 28an balorazio publikoa egin zen, ondorio batetara helduz: grebara joateko beste arrazoi bat dira. Hala azpimarratzen du gizarte politiken arduradun **Mikel Novalek**. "Egoera irauli nahi badugu aurrekontu politika errotik aldatu behar da, ez dutelako balio gizartearen zati handi batek dituen beharrak asetzeko. Alternatibak baditugu, eta hala erakutsiko dugu greba orokorrean".

"Aurrekontuek aurreko urteetako ildo berdina jarraitzen dute, eta proposatzen diren aldaketak ez

dira inola ere islatzen aztertutako partidetan. Are gehiago sakontzen da logika neoliberal eta antisozialean, kapitalari mesede egiten dion zerga-politika batean oinarrituta baitago, ziklo ekonomikoaren eta zorpetze-premiaren menpe uzten gaituelarik".

Egungo abagunea hartzen du Novalek ardatz gisan. "Hazkunde ekonomikoaren erritmoaren murrizketa bat datorrela diote datuek. Doktrina dominantearen arabera, hori tentsio komertzialek, protekzionismoak eta muga-zergen igoerak, gatazka politikoek eta finantza-merkatuaren zurrunbiloez eragin dute. Hala ere, egiturazko beste arrazoi batzuk ere badaude, hala nola, aurrekontu-politika murriztaileak etengabe aplikatzea, Europar Batasun osoan gertatzen

ari den bezala. Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak ez dira salbuespen".

Mikel Novalek salatzen duenez, aurrekontuek kapital-errenten aldeko aberastasunaren banaketa gero eta desorekatuagoan nabarmentzen dute. "Eros ahalmenaren galerak langile klaseari osotasunean eragin dio, baina, batez ere, diru-sarrera txikiak dituzten pertsonei. Faktoreetako bat enplegu duinaren gabezia da; krisia hasi zen urtearekin alderatuz, lanean ari ziren pertsonen kopurua ez berreskuratzeaz gain, sortu den enplegua prekarioa eta aldi baterakoa izan da".

"Pobrezia areagotzen ari da, noiz eta hazkunde ekonomiko bete-beteko garaian eta enplegua sortzen ari denean. Desoreka sozialak gero

eta handiagoak dira. Pobrezia areagotzearen oinarrian hainbat kausa daude, eta aplikatzen diren politika publikoekin loturik daude”.

Eusko Jaurlaritzaren industria-politika ere aztertu du ELAK. “Industria indartsu baten alde egiten dutela diote, bertan okupatutako pertsonen helburua %25ean kokatuz. Errealitatea urrun dago. Sektore horretako portzentaia %22,6an kokatzen da, eta jaisten. Horrek erantzukizun zuzena du, Jaurlaritzaren politika industrial hutsala. Horren adibide dira sektore estrategikoen pribatizazioa edo Kutxabanken bankarizazioa”.

“Tenemos muchas razones para ir a la huelga; estos presupuestos son una más. Tenemos que cambiar de raíz la actual política presupuestaria, porque no sirve para satisfacer las necesidades de gran parte de la sociedad”.

Hau guztia dela-eta, Novalek ez du ulertzen bere burua ezkertiarizat duen inork aurrekontu hauek babestea. “Errealitatea errotik eraldatu nahi dugunok aurrekontu hauen aurka gaudela erakutsi behar dugu. Horren ordez, badaude gobernuaren ideologia eta aurrekontu esparrua onartzen duten indar politikoak (Podemos eta Equoren aurtengo kasua) zerga-erreforma baten bidez baliabide gehiago lortzeari uko egiten diotenak, zorra ordaintzeari lehentasuna emanez, Aurrekontu eta Finantza Egonkortasunari buruzko Legearen aurrekontu-mugak ezartzea onetsiz, hala nola gastu-araua, etab. Alderdi hauek aurrekontuetan zati txiki batean soilik izango dute esku-hartze eta erabakitze ahalmena. Honek aurrekontuaren esentzia bere horretan mantentzea suposatzen du. Horrela jokatzek sistemak asimilatzea dakar”. ■

Podemos consolida unos presupuestos neoliberales a cambio de modificar el 0,75% del presupuesto

Mikel Noval, responsable de política social

El acuerdo alcanzado por el Gobierno Vasco con Podemos y Equo para 2020 no va a suponer ningún cambio en la política presupuestaria. En definitiva, Podemos y Equo han asumido las líneas presupuestarias del Gobierno Vasco, que no aceptaba negociar una reforma fiscal que aumentase la recaudación y le permitiese aumentar el presupuesto (a diferencia de lo que hizo de cara a los presupuestos de 2017, al acordar con el PP una rebaja del Impuesto de Sociedades). También se han dado por buenos los límites de la regla de gasto, que impiden que el presupuesto en 2020 crezca más del 2,8%, a pesar del fuerte superávit con el que viene contando el Gobierno. Asimismo, se acepta la prioridad del pago de la deuda en detrimento del incremento de las partidas sociales.

Vayamos a lo concreto. Se ha modificado el proyecto de presupuestos en 88,9 millones de euros, lo que representa apenas un 0,75% del total de 11.774 millones del proyecto inicial. De esta manera el presupuesto que se aprobará no incorpora ningún cambio relevante. A ello hay que añadir que ni siquiera se vaya a aumentar el presupuesto en esos 88,9 millones, ya que es una mera reasignación del gasto (hay enmiendas de recorte del gasto). No hay, por tanto, ningún aumento del presupuesto respecto al proyecto del Gobierno.

Analizando lo acordado, hay varios aspectos que hay que destacar por su gravedad. La RGI en 2020 seguirá sometida a un fortísimo recorte respecto a la Ley aprobada en el Parlamento Vasco en 2008. Que una fuerza política de izquierdas, que se ha venido oponiendo a los recortes en las prestaciones sociales y que apoyó la ILP de la Carta de Derechos Sociales que planteaba que la RGI fuese del SMI (lo que equivale a doce pagas de 1.050 euros) haya aceptado un recorte del 25% respecto a lo que marca la mencionada ley de 2008 es un salto en el vacío, pero sin red.

Por otra parte, el acuerdo da por bueno que se incumpla también la Ley de Sostenibilidad Energética. Dicha Ley, en una Disposición Adicional, recogía que en 2020 el Gobierno Vasco debía constituir un fondo con una cantidad mínima de 100 millones de euros para facilitar las inversiones derivadas de esta ley en la Administración local. El acuerdo deja 80 millones para el futuro, y más de la mitad de esa cuantía ni siquiera se especifica para cuándo. Otro elemento llamativo es que el acuerdo se presenta como un pacto para 2020, pero realmente recoge compromisos económicos para años futuros, por lo que más parece un acuerdo de cara a la legislatura siguiente.

Podemos y Equo hacen flaco favor a quienes defendemos la transformación radical de las políticas presupuestarias y fiscales. El presupuesto en vigor en 2019 es muy neoliberal, y así lo decían hace un año esas fuerzas políticas. El que se va a aprobar para 2020 no supone cambio alguno en su orientación neoliberal. Quienes han cambiado son las fuerzas que ahora lo van a apoyar. ■



Mobilizazio soziala, bai eta ere ekologikoa!

Frantziako Gobernuak erretreten erreforma «baztertu arte» greba hasi dute abenduaren 5ean sindikatuek

> **Xabier Harlouxet**

Abenduaren 5a 1945etik geroz plantan den eredu sozialaren kontra Gobernuak daraman erasoaldia geldiarazteko hitzordua da.

- Langabezi asurantzaren kalkularen erreforma brutalak ehun milaka pertsona pobrezia oraino azkarrago batean botatzen ditu. Ber denboran, nausiekiko langileen egoera oraino gehiago prekarizatzen du, lanaren galtzeko beldurra oraino gehiago indartuz. Ondorioz, geroko soldata maila eta lan baldintza apaltzeen onartzerat bultzatzen du.
- Zonbait gizarte kotizazioen behititze ez kopentsatuek eta beste batzuren goititzearen errefusak, gobernuak artizialki sortzen duen Gizarte Segurantzaren defizita eragiten dute. Horren bidez justifikatzen dira gizarte laguntzen ttipitzeak, Ospitale publikoaren okertzea eta asurantza edo osagarri sistema pribatuen erraztea.

- Erretreta indibidualaren erreformak –ez dezagun hau erretreta unibertsalarena deitu– punduen bidez eginen denak, bi ondorio ukanen ditu: plantan emanez sistema bat non ez den «*diru laguntza definitua*» izanen baizik eta «*kotizazio definitu bat*» automatikoki jeutsi araziko ditu jendarte prekarizatuenei beren erretretaren mailak, haiek langabeziaren eta lanaldi partzialaren biktimak direlako beren lan ibilbidearen parte batean. Erretreten kotizazioen hunkitzea errefusatu, eta Barne Produktu Gordinaren mailaren araberrako ehuneko batekin erretreten gastuak geldituz, hor ere erretreten diru laguntzak ttipiarazten dira, eta ber denboran jendeak gehiago denbora gehiagoz lan egiterat bultzatzen. Erreformatik elkartasun eta babes sozial publikoaren printzipioak atakatzeko eta jendarte nahi du lerra arazi indibidualismoaren printzipiorat eta babes sozial pribatuekilako sistemarat.

Las protestas contra la reforma de las pensiones en Francia tienen una evidente vertiente social, pero también ecológica

Ahulenak, ahulago

Ahulenak gehiago prekarizatzeaz gain, injustizia soziala horrela larriagotuz, erretreten erreforma hau kokatzen da krisi ekologiko eta klimatikoaren gaizkontze logika batean. Lehen Ministroak aldarrikatu duen bezala, beharko da «bizian zehar gehiago lan egin, progresiboki, baina lan gehiago egin».

Denbora luzeagoan lan eginarazten bada, langabezi masiboa handitu nahi izan gabe, hori molde bakar batez egiten ahal da: gehiago ekoitzi behar da! Gehiago ekoitzi logikaren ondorioa da ximpleki lehengai gehiago behar dela ustiari gure planetatik, berriztagarria ez den energia gehiago erre eta hondarkin eta atmosfera eta ozeanoak berotzen dituzten berotegi efektuzko gas gehiago bota. Horrelako egoera batean, martxan den hondamendia txartzeko eta bizkortzeko on diren logika eta aipatu aterabideak nola onartu? Nola onartu, jendarte jarria den abarraren segatzen jarraitzea oraino denbora gehiagoz eta eta abiadura handiagoan?

Beste bide bat posible da!

Beste ainitz logika eta aterabide badira. Lanaren eta aberastasunen banatzea, harremanen, kulturaren eta arten garatzea, ez eta ontasunen eta harrokeriazko kontsumoarena, zaharkitze programatuaren kontrako borroka, hainbat aktibitateen saleroste arlotik ateratzea, elkartasun sistemen indartzea eta komunalen kudeaketa kolektiboa, etab. Gure osasun sistemaren, langabezi asurantzaren eta erretreten sistemaren aldaketak bide horietara behar dira bultzatu! Elkarrekin, gobernuaren erasoaldi anti-sozial eta anti-ekologiko berri hau gelditzen ahal dugu. Orain da mementoa! ■

MERKATUA (soilik) EZ DEN AZOKA

Manu Robles-Arangiz Fundazioa lehenengoz egon da aurten Durangoko Azokan

> MRA Fundazioa

Euskalduna *euskara-duna* dela diogun bakoitzean, sudurra luzatzen zaigu pixka bat. Horregatik gara euskaldunak sudur-luzeak. Euskalduna ez da *zatzaizkit* eta *diezadakezu* egoki erabiltzen dakiena. Euskaldunak bere errituak ditu eta Meketan Mekena, gurean, Durango da. 1965ean egin zen lehenengoz Durangoko Azoka, baina aurten izan da lehen aldia Bizi! eta Manu Robles Arangiz Fundaziokoarentzat, sinistuta gaudelako, sindikalgintza ere badela kulturaren parte, eta sinistuta, gure argitalpenak ere, euskal kulturaren adibide direla.

"Pegata bat hartu al dut?". Gazte jaiotzen da aldiro Durango. Lehen egunean, ikasleek arrapaladan ibili ziren. "Benetan emakumeak eta sindikalismoa hau dohain dela?". Gaztetxoek badakite bizitzan ezer gutxi dela balde, eta hala denetan, susmo txarra izan behar dutela. "Baina zuek nor zarete? Zuetako zein da Manu Robles-Arangiz?".

Gaztetxoenen inozentziak haraindi, hurbildu zaigu ilea soil-soil, bonber zabal bat zeramanan nerabea. *No eran trabajadoras solo mujeres* liburua izan du esku artean, atzeko aldea irakurri du eta azaleko emakumeari begira egon da denbora batez. "Elorrieta etorriko

al da sinatzera?" galdetu digu ile-apaindegiko usaina zuen andre batek. "Elorrieta?". "Bai, Euskadi Saria irabazita, hemen inguruan izango da, ezta?". Hurbildu zaizkigu 1982ko aldizkarietz galdezka, *Bizi!* taldea sekula entzun ez zutela esaka, edo digitalizazioaren monografikoa nondik atera dugun harriritua.

Hiru egunez stand propioa izan dugu eta ez dira edonolako hiru egun izan: Toti Martinez de Lezearekin hartu dugu kafe bat (kafetegian, ondoko mahaian topatu genuen); Bernardo Atxaga gure postuan izan da (*Alda-n* azaltzen da, eta hortxe egon da, hiru egunez gure postuan, zintzo demonio) eta Gorka Urbizuk 'apa' esan zigun (ia-ia begia kliskatu ere bai); Ez gara izar-handien atzetik ibili, ez ditugu sinadurak saldoka banatu eta ez gara hedabideen azaletan azaldu. Baina Durangon egon gara lehenengoz, eta garrantzitsua da azpimarra bat egitea.

Kultureta artean pasa dugu abenduko zubia, eta kultura munduan jarduten dutenei *artista* deitzen diegu. Artista da, konturen baten iaioa den hura, xelebrekeriarekin ere lotzen dugu artista izatea, baina bere adiera nagusian arte egiten duen pertsona da artista, elektrizistak elektrizitatea egiten duen bezala artistak artea egiten du. Baina elektrizista langileztat jotzen dugun moduan,

zergatik ez ditugu artistak berdin identifikatzen? Orduak, indarrak eta sormena erabili arren, bere beharrak asetzeko ordainsaririk lortzen ez duenari, zergatik deitzen diogu ameslari eta ez prekario?

Kapitalismoa asetzen ez den sistema bat da, eta berehala konturatu zen kulturaren balioa prezioarekin berdinu behar zuela, kulturaren logika kapitalismoarenaren zutabeekin eraiki behar zuela, alegia, kontsumoarekin, lehiarekin, individualitatearekin... Durangoko Azoka izan daiteke sistemari ondo datorkion pieza bat: itxi ditzagun herriko liburutegiak eta dotoretu dezagun Durango. Izan daiteke, baina artisten, beraz langileon elkargune ere bada Durango, helburu berrien haragiztatzea bada, hartu-emanen espazio, ideien plaza eta aldaketen suspergarri bada. Hori da kultura, eta hori ere bada sindikalgintzaren erronketako bat. Sindikalgintzaren pasilloetan leku propioa izan behar du kulturak, eta alderantziz, kulturaren pasilloetan egon behar du sindikalgintzak. Eta pasilloak ez ditugu kasualitatez aipatzen, balkoitik balkoirako tertulietan, haizea, beti kontra azaltzen baita. Bihurtu dezagun kantu bat gure haserrea, idatzi ditzagun grebak animalien hizkuntzan edo marraztu ditzagun sudur-luzeak, pankartak kaleko koadro bihurtzeraino. ■



ELAk aktibismo sozialaren baitan dagoen indarkeria sexista aztertu zuen Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Egunean

“Ezkerreko mugimenduetan ere indarkeria sexista dago”

> Nagore Uriarte

Ez da erraza norberak bere burua aztertzea, are eta gutxiago indarkeria sexista bezalako gai batean. Baina behar-beharrezkoa da. Horregatik, azaroaren 25ean, Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Eguna, ELAk ezkerreko mugimendu sozial eraldatzaileetan (ere) ematen den indarkeria matxista aztertu zuen. Sinestarazi nahi digutenaren aurka, edo sinestarazi nahi dugunaren aurka, aktibismo sozialean ere indarkeria sexista dago, gizarteko sektore guztietan dagoen bezala. **Tania Martínez Portugal** Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzia

Politikoetako ikerlaria da, *Euskal Herriko indarkeria sexistari buruzko imajinarioak eraldatuz. Emakume ekintzaileen narratibak* tesiaren egilea. Tesiaren ondorioen inguruan mintzatu zen azaroaren 25ean Donostian.

Gu eta besteak; autokritika eza

Egon daitezkeen arazoak konpontzeko eta aurrera egiteko autokritika ezinbestekoa da. Baina aktibismoan autokritika ezkutatu egiten dela salatu zuen Tania Martínez Portugalak. “Gu eta besteak dikotomia oso ohikoa da ezkerreko

mugimenduetan. Autokritika ez da egoten, eta ‘gu’ ondo ari garenen sententzia luza nahi da, irudikatuz ‘besteak’ direla gaizki ari direnak, indarkeria mota horiek sortzen dituztenak”.

Mitoeak eta estereotipoek garrantzia handia dutela nabarmendu zuen. “Gizon bat ezkertiarra bada, edo bere burua ezkertiarat badu, oso zaila izaten da pertsona hori gero kolektibo batean erasotzailea izan daitekeela onartzea. Horrek zeharkalteak ditu erasotuaientzat, gehiago kostatuko zaiolako gertatutako definitzea eta izen-abizenak jartzea. Politikoki zuzenak diren erasotzaileak



Tania Martínez Portugal

“Jerarquizar las expresiones de violencia es un error. En el extremo estaría la violencia física, pero para llegar a ese punto ‘cumbre’ hay miles de violencias que facilitan ese camino. Y los movimientos de izquierda muchas veces no asumen ese tipo de violencia. Es más, se asimilan”

ere daude, pertsona militanteak, diskurtso progresistakoak, lidergotza adierazten dutenak... Baina erakundeetan pertsona horiek lider zuzen gisan hartzen dira, oso zaila izaten da erasotzaile gisan identifikatzea. Gainera biktimak estereotipatzeko joera dago, eta hori arriskutsua da. Badirudi emakume indartsu, politizatu eta feminista batek ezin duela jasan indarkeria, baina ez, edonor izan daiteke indarkeriaren biktima”.

Indarkeria mota batzuk ageriagokoak dira, beste batzuk, berriz, zailagoak izan daitezke identifikatzen. Baina guztiak dira indarkeriak. Eta, Tania Martínez Portugalen ustez, ezkerreko erakundeetan kosta egiten da ikusezina izan daitezkeen indarkeria mota batzuk antzematen, eta, gainera, gertatzen direla onatzen.

“Erresistentziak egon ohi dira arazo honi aurre egiteko. Nekez onartzen da organizazio hauetan ere indarkeria sexista dagoela. Are eta gehiago, aitortzen denean ere uko egiten zaio egoera iraultzeko baliabideak jartzeari. Beldurra sorrarazten du ezkerreko erakundeetan bere baitan indarkeria sexista dagoela onartzeak, eta aurpegia zurrizteko joera dago. Aditza ematen da arazoa gaingiduta dagoela hitzaldiak edo formazioa antolatzen delako, esaterako. Feminismoa deslegitimatzeko joera ere egon daiteke sarri”.

Indarkeria matxista azalarazi den kasuetan ere hori argitzeko oztopoak jarri izan dira. “Emakumeari leporatu izan zaio ere bere arazo pertsonal batengatik kolektiboren batasuna apurtu dezakeela. Erakunde bakoitzak bere buruari galdetu beharko lioke ea indarkeria sexistari indarkeria politikoaren status quo bera aitortzen dion ala ez. Egoera irauli nahi bada erantzun politikoa behar da: aitortza, zapaltzaile eta zapalduak hitz eginez; erasotuari hitza ematea; eta ondorio kolektiboak ateratzea, ez ondorio pertsonalak”.

Indarkerien hierarkiari ez

Indarkeria ez da gauza natural bat, sistema baten baitan kokatu behar da, botere harremanen ondorioz sortzen da. Beraz, izaera politikoa du, produktu kultural bat da. Tania Martínez Portugal kezkatuta dago indarkeria ezberdinen inguruan egiten den hierarkizazioaz. “Askotan indarkeria espresio ezberdinen hierarkia bat egiten da. Indarkeria honen muturrean indarkeria fisikoa legoke. Baina hierarkia hau egitea akats larria da. Indarkeriaren puntu ‘goren’ horretara heltzeko bide guztia errazten duten beste mila indarkeria daude, eta jendeak askotan ez dio horri erreparatzen. Eta ezkerreko mugimenduek indarkeria mota horiek askotan ez dituzte asumitzen. Are eta gehiago, asimilatu egiten dira. Adibidez: agerraldi publikoak zein ordutan dira? Batez ere gozetan,

nagusiki liberatuak joan ahal diren ordua. Eta, hor, gehienak gizonak dira. Edo, bilerak. Zeinek hartzen du hitza? Nork darama agenda? Agendan aldarrikapen feministak kanpoan uzten dira. Borrokak hierarkizatu egiten dira, eta zazpi puntu badaude lantzeko indarkeria matxista agendaren azken puntua bihurtzen da. Hori ere indarkeria da”.

Diskurtsoaren garrantzia

Tania Martínez Portugalak diskurtso feminista propioa izatearen garrantzia aipatu zuen. Helburu horren egikaritzan arazo bat ikusten du: politikoki zuzena den diskurtsoaren apropiazioa. “Azken urteetan ulertu da feminismoak indar handia duela, zaila da feminista ez zarela aitortzea. Diskurtso feministaren nolabaiteko apropiazioa gertatzen ari da. Hau arriskutsua da. Oportunismo politikoa nabarmena da, eta ezkerrean ere, zenbait tokitan, erosi egin du diskurtso feminista hori etekinak lortzeko”.

“Ezkerrean ere diskurtso patriarkalaren gauza asko daude. Erraz identifikatzen da indarkeria fisikoa. Baina kosta egiten da jarrera patriarkal txikiagoak identifikatzea. Hau askotan gertatzen da publiko/ pribatua dikotomian. Fisikoak ez diren indarkeria kasuetan arazoa pertsonalizatu egiten da, gertutakoa ‘zure arazoa’ balitz bezala, kolektiboa aparte utziaz”. ■

> Gorka Quevedo

Azaroaren 29a egun handia izan zen ELarentzat. Izan ere, egun horretan sindikatuko Euskaltzaleen Sarea eratu zen Bilboko Bira Kultur Gunean egindako jardunaldian. Goizean ELAk euskararen inguruan duen estrategia partekatu zuten bildutako sindikatuko kideek. Hamaika erronka ditu ELAk. Batzuk, barrura begirakoak: euskararen inguruko Plan Estrategikoa, sindikatuan euskararen diagnostikoa egiteko urratsak, negoziazio kolektiboan garatu beharreko Euskara Planen Gida... Beste batzuk, kanpora begirakoak. Horregatik *Euskaraz bizitzeko 11 urrats* agiria aurkeztu zen.

“Vivir en euskera no es una opción meramente individual, lo tenemos que llevar a cabo en esta sociedad y dentro del desarrollo que los diferentes idiomas tienen en esta sociedad”

Euskara arduradun **Pello Igeregik** nabarmendu zuenez, ELAren asmoa agiri hori administrazio nagusiei bidaltzea da. “Publiko egin ditugun neurri hauek gure ustez ezinbestekoak dira euskaldunok, erdaldunek bezala, gure hizkuntza eskubideak bermatu ditzagun. Izan ere, euskaldunok euskaraz bizitzeko eskubidea gauzatu ahal izateko instituzioen inplikazio zuzena ezinbestekoa da eta hizkuntzen garapena baldintzatzen dituzten eremu guztiak hartu behar dituzte kontuan, norbanako eskubideak erabaki kolektiboan bitartez bakarrik gauzatu ahal izango dira-eta”.

Igeregik euskara eta eskubide zibilak parekatu zituen. “Euskaldunoi euskaraz bizitzeko eta lan egiteko eskubidea dagokigu, eta ELAk beste edozein eskubide zibilen pare nahi du hau ere. Euskaraz bizitzea ez da

norbere hautu hutsa, gizarte honen barruan gauzatu behar dugu, eta gizarte honetan hizkuntzek izan dezaketen garapenaren baitan”.

Euskara, taupada kolektiboa

Ez dago sare bat ehuntzeko elkar-ezagutu eta gozatu baina gauza hoberik. Horregatik, goizeko formazio jardunaldiaren ostean festarako tarte a egon zen.

Lehendabizi bertso-bazkaria, Miren Artetxe eta Jon Maia bertsolariekin. Ostean, ELAko irakaskuntzako ordezkari Alfredo Lakuntzak kontzertu txiki bat eskaini zuen euskarazko hainbat kanta ezagunekin. Karaokea ere ez zen falta izan, atzoko eta gaurko abestiek.

Eta gero... beno, gerokoak hor utziko ditugu. Biran gertatzen dena Biran geratzen delako. Ala ez? ■

11 urrats euskaraz bizi ahal izateko

ELAk sindikatuko euskaltzaleen sarea eratu zuen azaroaren 29an Bilboko Bira Kultur Gunean egindako ekitaldian



TOK-TOK

Uxue Mingo,
Euskara Batzordeko kidea

Igaro zen euskararen eguna, pasa zen bezala Euskaraldia edo bestelako uneko ospakizun zein feria. Durangokoak ere egin du aurtengoa, eta berriz ere, edozein egun dugu gaurkoa. Lantoki zein jolastoki elkarrizketa eta bakarriketez bete eta hiztun zein hizkuntzek bizi edo iraun behar duten horietakoa.

Eta honetan ere, euskaldunok gure buruari euskararen bizia edo iraupena gure esku ote dagoen galdetzen diogu beste behin ere, hori baita behin eta berriz ulertzer



ematen digutena. Guk, norbanakook, zaindu behar omen dugu euskara. Zer ote zaintza eta zer aintza... Non geratzen da baina gure Gobernuen ardura? Oraindik ere euskaraz bizi eta lan egiteko eskubidea bermatuta ez dagoen honetan, nork du bada erantzukizuna?

Euskarak gure gizartean duen lekua, edo leku falta, ez dago gure hizkuntza aukeraketaren baldintzapean soilik. Ez noski. Euskararen aldeko hautua egiteak ez du euskaraz bizitzeko aukera bermatzen, izan ere eskubideak gizarte baten barnean egikaritu behar baitira, baita euskaraz bizitzeko eskubidea ere. Eta hala den heinean eskubidea gauzatu ahal izateko instituzioek jokatu beharreko papera ezinbesteko da. Hauen ardura da beraz eskubideen babes eta bermerako beharrezko markoa sortu eta neurri zehatzak ezartzea.

Baina tamalez, jakin badakigu, gure Gobernuak non kokatzen duten euskara, eta batez ere non ez duten kokatzen. Euskara parkean bai, baina lantokian erdaraz, mesedez. Hori da ekonomia merkatu honetan gailentzen den premisa nagusietako bat, hizkuntza hegemonikoen supremazia ez da inolaz ere ezbaian jartzen. Eta beraz, batzuk kontrakoa saldu nahi badigute ere, hauek dira oraindik ere herri honetan inposatzen diren hizkuntza bakarrak.

Eta horrek ondorio garbiak ditu noski, herri honetan euskaraz hitz egiteko eskubidea formalismo hutsa besterik ez da. Oraindik ere, saltoki batera joan eta erostekotan naizen jertseak alergiarik emango didan jakin nahi badut erdarara salto egitea tokatuko zait, lantokian arduradunarekin nire oporrak eztabaidatu nahi baditut gaztelera,

frantsesa edo hor nonbait gordeta dudan eskolan ikasitako ingelesa berreskuratzea hobe izango dut... Gainera, euskaraz jakin ez eta euskararen aldeko apustua egitea okurritzen bazait nire motxilatik atera beharko ditut horretara bideratzeko diru zein ordu apurrak.

Hau da errealitatea, eta egia bada ere pisua ezin eror daitekeela norbanakoen gain, egia da baita ere norbanako zein eragileon ardura eta bete-beharra dela egoera salatu eta aldaraztea, Gobernuak agerian utzi eta neurri zehatzak galdegitea. Eta bai, ELAn ere euskararen eguna baliatu genuen horretarako. Izan ere, Euskara ez dakit, baina eskatzea libre omen da oraindik ere. Horrela, euskaldunon eskubideak bermatu daitezten ezinbesteko ikusten ditugun gutxieneko batzuk dokumentu batean jaso eta aurkeztu genituen joan den hile amaieran. Eskarien artean, besteak beste, 15 urte barru zerbitzu guztiak elebidun izateko bermea, langile guztiok euskaraz lan egitea ahalbidetuko duten prozesuak aurreikustea, itzulpen zerbitzu publikoaren sorrera, lan mundua euskalduntzeko laguntza eta beharrezko baliabideak esleitzea, komunikabideei begirako estrategia finkatzea edo eta hezkuntza politikan hizkuntza ereduak gainditzea barnebildu ditugu. Baita euskal sortzaileen estatus eta ikusgarritasunaren garrantzia eta beharra ere.

Eta zerrenda luzea egin genezaken, baina oinarrizko 11 urratsetan barnebildu ditugu azkenik gure eskariak. Eta hauek OIentzeroren eskutitzean gehitzeko tentazioa ere izan dugu, baina nola utzi ikazkinaren eskuetan bere ardurapean ez dagoena? Nori eskatu ondoren azalpenak dir-dir egiten duen opari zorroa ireki eta barnean ezer aurkitzen ez dugunean?

Jo ditzagun aldaketa eske dagozkigun ateak, eta erantzunik ezean bete ditzagun kaleak! ■



Intentando romper el bloqueo del convenio de locales y campos deportivos de Bizkaia

A pesar del amplio seguimiento de los 14 días de huelga convocados –del 28 de octubre al 10 de noviembre– entre los trabajadores y trabajadoras del sector de locales y campos deportivos de Bizkaia, la patronal sigue sin moverse de manera significativa, por lo que ELA no descarta una intensificación de las movilizaciones, tal como explica Isa García, responsable del sector.

“Es evidente que la huelga ha hecho moverse a las empresas, que han vuelto a la mesa de negociación tras meses sin hacerlo; se está hablando de jornada y temas que antes no querían abordar pero, al mismo tiempo, no vemos que se estén dando avances importantes”, explica esta sindicalista. “Si en breve no hay ofertas concretas, ELA va a proponer una intensificación de las movilizaciones”.

Asimismo, ELA ha solicitado una reunión a tres bandas entre Eudel, empresas subcontratadas y sindicatos para plantear que las administraciones se comprometan a recoger en los pliegos de sus licitaciones los contenidos del convenio que se firme. Isa García explica que la rotación de las plantillas y la falta de estabilidad es una característica de este sector.

“La mayor parte de la contratación es a tiempo parcial, contratos muchas veces de obra o servicio en fraude de ley, salarios bajos, jornada elevada y parte de la actividad como la preparación de clases que no se considera tiempo efectivo de trabajo.

“Por eso, queremos marcar referencias de jornada de 35 horas a la semana –1.592 año cuando el convenio marca una jornada de 1.700– incrementos salariales importantes, consolidación de horas complementarias, horas de efectivas de trabajo para preparación de clases, horas para formación entre otras. Queremos lograr un convenio que permita dar un salto cualitativo en la mejora de las condiciones de este colectivo de trabajadoras y trabajadores”.

Udaltzainak plantilaren %25 gutxiagorekin lan egitera behartzen dituzte EAeko udalek eta Eusko Jaurlaritzak

ELAk mobilizazioak iragarri ditu Arkautin eta udaletan, udaltzaingoak bizi duen egoera larriari irtenbidea emateko, behingoz lanpostuak betetzeko eta enplegua egonkortzeko neurriak martxan jar daitezzen exijitzeko. Udalek eta Eusko Jaurlaritzak hartutako erabakien ondorioz, EAeko Udaltzaingoan izugarriko utzikeria eta prekarizazioa dago, %30eko behin-behinekotasuna eta Arkautin formazioa jasotzen ari diren eta 600 euroko soldata besterik jasotzen ez duten poliziak. Udalak Jaurlaritzaren presio eta aginduei men egiten ari dira.

Akordioa Andoingo Sapa lantegian

Langile Batzordeak –ELAk gehiengo osoa du– akordioa lortu du Andoingo Sapa enpresaren zuzendaritzarekin. Akordioak, besteak beste, 2019 eta 2020 urteetarako KPI+0,8ko soldata igoera jasotzen du. Gainera, enpresak mugitzen diren langileentzako osagarri bat negoziatzeko konpromisoa hartu du. Akordio honek agerian uzten du grebaren eta antolakuntzaren garrantzia. Akordioaren aurretik sei greba egun egin ziren, eta akordioa lortu zenean beste zortzi egun zeuden iragarrita. Enpresa soilik mugitu da langileen borrokarako determinazioaz jabetu denetan. Bere egoera ekonomikoa ona izan arren, greba deialdiaren aurretik enpresak ez zuen ezer eskaintzen.

Lan Ikuskaritzak EITB zigortu du berriz ere, lege-iruzurrean langileak kontratatzeagatik

Lan Ikuskaritzak arrazoia eman dio ELAri, eta beste behin zigortu du EITB, langileak lege-iruzurrean kontratatzeagatik. ETBk beste 10 langileri erregularizatu beharko die kontratua; falta larriagatik ere 6.500 euroko zigor ekonomikoa ezarri dio. Zoritxarrez, EITBko zuzendaritzak, bere enplegu-politika erregularizatu eta egiturazko beharrak langile finkoekin bete beharrean, legea sistematikoki zapuztea eta aldi baterako kontratuak dituzten langileekin egiturazko beharrak betetzearen aldeko apustua egiten jarraitzen du. Iruzurrezko kontratazioaren aldeko apustu hau ez da berria, sistematikoa da eta denboran zehar mantentzen da.

ELAk EITBko zuzendaritzari eskatzen dio amaiera eman diezaiola, behingoz, prekarietate-politikei, eta arautu dezala bere zerbitzuak ematen dituzten langileen lan-egoera.

El acuerdo entre LAB, CCOO y UGT con la patronal FVEM es insuficiente y desactiva una lucha histórica

La militancia de ELA dice NO al acuerdo del Metal de Bizkaia



En la imagen la asamblea celebrada el 2 de diciembre para acordar la postura de ELA ante el acuerdo logrado por LAB, CCOO y UGT con la patronal

El 26 de noviembre CCOO, LAB y UGT llegaron a un preacuerdo con la patronal FVEM sobre el convenio del Metal de Bizkaia. Un acuerdo al que ELA no se suma; nuestra militancia en el sector decidió por unanimidad no firmarlo, argumentando que es insuficiente. El 3 de diciembre ELA realizó una comparencia para explicar lo acordado en asamblea. “Desde el inicio FVEM intentó terminar con la unidad sindical. Mientras se sucedían las reuniones en el CRL la patronal negociaba con el resto de sindicatos. Una vez rota la unión sindical, la plataforma unitaria comenzó a rebajarse hasta alcanzar el acuerdo”, relata **Mikel Etxebarria**, responsable del metal en Bizkaia.

El acuerdo supuso el final de una unidad de acción que tuvo su punto clave con el acuerdo alcanzado el 10 de mayo entre ELA, LAB, CCOO y UGT. “El acuerdo suponía una importante simplificación de las demandas

sindicales, aunque era a su vez ambicioso. Por otro lado adquirimos el compromiso de modificar la plataforma unitaria solo mediante acuerdo entre todos los sindicatos, para evitar que la patronal terminara con la unidad sindical”.

“Esta unidad con objetivos claros ha sido clave para entender el conflicto. Después de realizar 5 jornadas de huelga antes de verano, y una semana de huelga del 30 de septiembre al 4 de octubre, culminada con una manifestación con más de 20.000 participantes, entendimos que la patronal se encontraba en una situación muy complicada. Había margen para lograr un acuerdo mejor, pero el resto de sindicatos no lo ha querido aprovechar”.

En cuanto a los contenidos, reconoce que “la subida salarial en tablas supone un avance, pero es imprescindible aclarar el incremento para la inmensa

mayoría de quienes trabajan en el sector que cuentan con salarios superiores al mínimo provincial. El avance en subrogación también es significativo, pero deja a muchos compañeros y compañeras de las subcontratas, en algunos casos colectivos muy precarios, sin un derecho que aportaría estabilidad a su vida laboral. El acuerdo no aporta contenidos positivos ni en salud laboral, ni en materia de igualdad de género”.

Las carencias son evidentes. “No existe avance para quienes están en condiciones más precarias. La contratación eventual y por ETT no sufre restricción alguna. La patronal ha conseguido que en empresas donde la eventualidad es alta que la flexibilidad se pueda aumentar un sábado más. Se continúa acordando una cláusula de inaplicación anterior a las reformas laborales, que permite el arbitraje obligatorio y que puede dar pie a algunas empresas a intentar no aplicar el contenido del acuerdo si así lo entienden. Sin olvidar que no se recoge reducción de jornada alguna”.

Etxebarria entiende que la renuncia a planteamientos claves de la plataforma sindical ha supuesto que una lucha histórica haya terminado con un acuerdo insuficiente, ante una patronal que se encontraba muy debilitada. “Dicho esto, es imprescindible subrayar el valor de la lucha desarrollada por las y los metalúrgicos. Seguiremos luchando en las empresas para mejorar las condiciones de nuestra gente”. ■

INPERIALISMOAREN AURKA, LEHEN LERROAN

Habanan, 2019ko azaroaren 1ean: 86 herrialdeetatik etorritako 1.332 ordezkari bildu ziren Kongresuen Jauregian, Kubako iraultzaren eszenatoki sasi-mitikoan, Amerikako egoera politiko berriaren inguruko ekimen bateratua aurrera ateratzeko asmo tinkoarekin. Euren artean, ELA egon zen, lehen lerroan, maiuskulaz idazten den Historiaren zati txiki baten lekukoa izateko, eta gure elkartasun osoa erakusteko. Ongi etorriak izan ginen, neoliberalismo eta inperialismoaren aurkako borroka amaigabearen indar guztiak ezinbestekoak direlako, batez ere Atlantikoko alde honetatik oso aliatu gutxi garen honetan.

Anfitrioi bezala, Raul Castro eta Miguel Díaz-Canel (Kubako figura politiko nagusiak) agertu ziren nazioarteko elkartasuna eskertzeko, besteak beste Nicolas Madurok (Venezuelatik sorpresaz iritsitakoa) azaldu zuena, ordubeteko mintzaldi gogoangarri batean. Dena den, Amerikako lehen lerroko ordezkari politikoak bildu ziren Habanan, eta amaieran onartu zen manifestu bateratuan kontinente osoko borrokarekiko elkartasuna aipatu zen, Ipar-Amerikako

indigenengandik Argentinarraino, Puerto Ricoko independentziaren aldeko deia eginez, tartean dauden inperialismoaren aurkako ekintza guztiak barne: Bolivia, Honduras, Paraguai, 'Lula libre', Txileko ikasleak eta abar amaiezin bat...

Nazioarteko topaketaren helburuen artean bi bederen bete ziren. Alde batetik, Kubako iraultzarekiko elkartasuna oihartzun handiko aldarria bihurtu zen, eta Kubako herria horren lekukoa izan zen (hango telebistak hiru eguneko emisioa egin zuen): garai zailetan, aurrera jarraitzeko mezua ozen entzun zen,

eta Kubako jarrera abegikorra horren froga bezala ulertu dezakegu.

Beste aldetik, Ameriketako Estatu Batuen inperialismoaren aurkako fronte zabal eta kementsua gauzatu zen egun horietan: Monroe doktrinaren aurkako oihua gailendu zen Kongresuen Jauregian, eta iparreko erraldoiaren aliatuak arerio bezala aipatu ziren, ahoan bilorik ez: Brasil, Kolonbia eta Peruko gobernuak, besteak beste... Agian, Amerikako garai berriaren atarian gaude, eta ELA horren lekukoa izan zen Habanan, aho batez garrasika: *¡Patria o Muerte, Venceremos!*



Esta revista se elabora con papel y procedimientos sostenibles

Franqueo concertado

NO 08/129